


GUGGENHEIM BILBAO **XX** 1997
2017



PELLO IRAZU

Panorama

2017ko martxoak 10
–ekainak 25

Pello Irazu. Panorama

- Data: martxoak 10-ekainak 25, 2017
 - Komisarioa: Lucía Agirre
-
- Pello Irazu funtsezko artista da gaur egungo euskal eta espainiar eskulturaren berrikuntzan. Hiru hamarkadatan zehar ibilbide sendoa garatu du, eta bertan, eskultura —zentzurik zabalenean— argazki, marrazki eta horma-irudiekin bateratu du.
 - Erabilitako diziplina edozein izanik ere, Irazuren lanak sakon jorratzen ditu gure gorputzen, objektuen, irudien eta espazioen arteko harreman anitzetatik sortutako arazoak.
 - Instalazioaren diseinua artistak berak taxututako gunek kontzeptual eta fisiko batean uztartzen da, eta Irazuren ibilbideko mugarrak eta lanik garrantzitsuenak jasotzen ditu gunek horrek.

Guggenheim Bilbao Museoak *Pello Irazu. Panorama* erakusketa aurkeztu nahi du: euskal eta espainiar eskultura garaikidearen berrikuntzako protagonisten artean dagoen artistaren 30 urteko ibilbidearen analisia, hain zuzen. Izenburuak adierazten duenez, atzera begirako erakusketek hartzen duten iraganerako joera baino gehiago, norabide anitz jasotzen dituen ikuspegia da hau: denbora espazioaren baitan tolesten da, eta nolabaiteko paisaia bat eskaintzen du.

Ehun lanek baino gehiagok osatzen dute erakusketa, eta artistak berak taxututako gunek kontzeptual eta fisiko baten bitartez uztartzen da; gunek horretan Irazuren ibilbideko mugarrak eta lanik garrantzitsuenak daude jasota. Iragana eta etorkizuna orainaldi jarraituan berraurkitu eta berritzea ahalbidetzen duen bat-bateko begirada sortzea da erakusketaren asmoa. Museoaren 105. aretoko hormek ikuslea biltzen dute, eta parte-hartzaile izan dadin eta eskultura-lengoiaren inguruko gogoeta egin dezan laguntzen dute.

Pello Irazu oso artista garrantzitsua da gaur egungo panorama artistikoan, eta 1980ko hamarkadan hasi eta gaur egun arte luzatzen den lan koherente bat garatu du; bertan, eskultura —zentzu zabalean: hiru dimentsioko pieza txiki-txikiak, objektuen hibridoak eta instalazio handiak— argazki, marrazki eta horma-irudiekin txandakatzen ditu. Erabilitako diziplina edozein izanik ere, Irazuren lanak sakon jorratzen ditu gure gorputzen, objektuen, irudien eta espazioen arteko harreman anitzetatik sortutako arazoak.

Atzera begirako erakusketa honen egiturak aretoaren erdigunea diagonalean zeharkatzen duen pasillo bat du abiapuntu: pasillo horren inguruan, zirkulu-forman, hainbat gunek antolatu dira lan desberdinekin. Erakusketan zeharreko ibilbidea esperientzia espazial konplexu gisa planteatu da, eta bisitariak uneoro izango du aukera ibilbide desberdinak hautatzeko, linealki edo ez. Erdiguneko gunek pasillo horrek Irazuren paper gaineko lanik esanguratsuenen garapen kronologikoa jasotzen du, bai eta erakusketa honetarako propio sortutako horma-irudi bat ere; azken horrek artistaren marrazki, collage eta margoen eboluzioa erakusten digu. Bitartean, gunek horren periferian geratzen diren eremuek Irazuren eskultura- eta argazki-lanak hartzen dituzte.

Artista horren obrak formatu eta teknika aukera zabala jorratzen du: zirriborro txikienetik formatu handira, arkatx eta akuarelatik hasi paper pintatua, zinta itsaskorra edo mota guztietako inprimatzeak erabiltzeraino. Halaber, erakusketaren bitartez espresio plastikoaren forma ezberdinak deskubrituko ditu ikusleak: hala nola, forma figuratiboa, geometrikoa, dokumentala edo keinuzkoa.

IBILBIDEA ERAKUSKETAN ZEHAR

1984–89 Hasierako etapa

Hasieran, 1980ko hamarkada erdialdeko argazkiak daude, saiakera efimeroak. Horietan oinarrituta egin zituen irazuk altzairuzko lehen lanak, eta horien sendotasun fisikoa zalantzan ipini zuen zati batzuk margotzean. Urte horietan sortu zen, hain zuzen, kritika garaikideak “Euskal Eskultura Berria” deitu zuena, eta hainbat artistak —hala nola, Pello Irazu, Txomin Badiola, Angel Bados, María Luisa Fernández edo Juan Luis Moraza— tokiko eskultura-tradizioa alde batera utzi eta Jorge Oteizaren lana berriz aztertu zuten, ikuspegi garaikideagoen bitartez: Minimalismoa, Posminimalismoa eta Arte Kontzeptuala.

Lehenengo etapa horretan, haren ibilbide osoan baliaitutako parametroetako batzuk ere ezarri zituen irazuk: besteak beste, beraren gaitasun fisikoa aintzat hartuz artelanen tamaina mugatzea —obra, beraz, ekintza performatibo baten ondorioa da— eta Minimalismora eta Jorge Oteiza eskultorearengana modu heterodoxoan hurbiltzea.

Urte horietan, trinkotasun material biziko lanak sortu zituen —*Gante* (1988), adibidez—, sartzen diren espazioan haustura eragiten dutenak. Pixkanaka, bere lanetan kolorea sartzen joan zen olio-pinturazko geruza lodien bitartez —*Lo dagoen lurra* (*La tierra que duerme*, 1986) lanean bezala—, edo industria-espraiak baliaituta. Artistaren hitzetan, “bi kasuetan eta ñabardurak ñabardura, optikoa denaren (begiaren) eta ukimenezkoa denaren arteko kontraesana sortzen da, espazialtasun desberdinekin”.

Lehenengo aldi horretan, Irazu marrazki-euskarrian lan egiten hasia zen dagoeneko, nahiz eta eskultura generoaren ezaugarriak baliatu. Bere marrazki eta pinturak beste euskarri batzuetan egiten zituen lanekin paraleloan gauzatu zituen, eta ez dira eskulturen zirriborro edo diseinu gisa planteatzen, obra independente gisa baizik. 1989an, irazuk bere lehen horma-irudia, *Korridore* (*Corredor*), egin zuen Bartzelonako Galería Joan Prats-en, eta marrazkietan garatutako gaiak espazio errealerara eraman zituen. Ibilbidean zehar, irazuk ikuslearen pertzepzioa eraldatzen du horman esku hartzean —pinturaz, eskulturaz zein argazkiez baliaituta—, bai eta eskulturak espazioan kokatzean eta espazio hori horrela zatitzean ere.

1990–98 Objektu berriak — Etxekoa

Londresen aldi labur bat igaro ostean, 1989an New Yorkera joan zen bizitzera, eta bere esanetan kanpokotasunaren ideiak markatutako garai bat hasi zuen; “uzten duzunarekiko ezartzen duzun distantzia ez da soilik garrantzitsua, izan ere, norbere baitatik kanpo dagoen elementu bilakatzen zara”. Hamarkada horretan material industrial arinagoak erabiltzen hasi zen artista, hala nola, kontraxapatua eta plastikoa, etxeko gunea iradokitzen zuten lanak egiteko. Eraikuntza huts gisa

desagertzen diren erreferentzia arkitektonikoekin jolasten zuen, baina horiei zegozkien zeinuak mantentzen zituen bertan, hala nola, adreilua edo etxeko objektuarekin elkarriketa.

Garai horretan objektuak deseraiki zituen lrazuk gero modu ez-jarraituan berriz ere muntatzeko, objektuen esanahiek eta eguneroko materialek arrotasuna eragin zezaten. *Ezezaguna* (*Unknown*, 1994) edo *After Pris* (1997) bezalako lanetan, lrazuk agerian uzten du publikoa eta pribatua denaren arteko tentsioa. Hori biderkatu egiten da *White St.* (1992) edo *Kommutadorea* (*Switch*, 1997) bezalako argazkietan: artistaren beste piezekin harreman publikorako diren sormen-prozesu pribatuen irudiak dira, eta espazio eta horman esku hartzen dute, eremu pribatuan gauzatutako ekintza bat ikusteko aukera ematen diguten amarru edo leihoak balira bezala. “Etxekoa eta familiarra aztoragarri bilakatzen da arrotasun prozesu baten kausaz”. Nahasmendu sentsazio hori honako lanetan lortzen du, adibidez: *Irakasle ona* (*mahai gainean egurrezko pieza bat izatea*) [*The Good Teacher (on the table being itself a piece of wood)*, 1993] eta *Emaztegaia* (*nahi duzuna izango zara*) [*The Bride (you will be whatever you want)*, 1993]; horietan, artistak idulkien gainean esku hartzen du, obra bilbe exageratua dute ehunekin janzten duenean edo izenburuak hautatzean.

Hamarkada horretako marrazki eta pinturetan, lrazuk oinarritzko koloreak ematen zituen aurkitutako, jada margotutako edo inprimatutako paperetan; horiek hartzen zituen abiapuntutzat obrari ekiteko unean, jarraipenez edo modu erreaktiboan. Etapa horretan geruza berriak gehitu zizkien bere marrazkiei, zinta itsaskorra bezalako materialak erabiliz —*Zauria 5* (*The Wound 5*, 1998) lanean, esaterako—, eta horrek bilbe alternatibo bat diseinatzeko aukera ematen zion, bai eta hainbat material elkartzeko ere.

1999–Gaur egun

2000. urtean, Bilbora itzultzearekin batera, lrazuk etapa berri bati ekin zion, eta haren obrak inguratzen gaituzten zeinuak zalantzan jartzen hasi ziren, ikuslearentzat iradokitzaileak diren formak baliatuta: erreferenteetatik urrunduta ageri dira elementuak, eta hurbiltasun, anbigutasun eta arrotasun sentsazioak sorrarazten dituzte aldi berean. lrazuk espazioa bereganatzen du: horma-irudiak hiru dimentsioko elementuekin konbinatu eta kanonak zehazten dituzten kategoria artistikoen muga desitxuratuen arteak labaintzen da. Hori gertatzen da, esaterako, *Acrobat* (2000) lanean, non horma-irudiak hautsi egiten duen ondoren eskulturak zigilatutako pareta.

Halaber, *Bizitza formak 304* (*Life Forms 304*, 2003) instalazioa, Guggenheim Bilbao Museoaren Bildumakoa, nabarmentzen da. Artistak Museoaren 304. aretorako egin zuen eta orain gune berri honi egokitu zaio. Pentagrama baten moduan ia, ikuslea inguratzen duen horma-irudiak espazioaren eta arkitekturaren inguruan dugun pertzepzioa aldatu, eta eraikitako objektuarekiko dugun harremana azaleratzen du. Objektu horrek gordeleku ibilgaitz eta ezegonkor bat dirudi, kolorea eta eguneroko material desberdinak bateratzen dituena, zinta itsaskorra edo kontratxapatua kasu. Berreraikuntzaren aurreko dekonstrukzioan gaudelako irudipena ematen du, lehenago bizileku izandako espazio edo arkitekturen hondakin berrerabilien aurrean. Garai horretako obretatik abiatuta, *04 tolesa* (*Pliege 04*, 2005) bezalako eskulturak egin zituen, artistak “hiru dimentsiotako marrazki” deitutakoak; bere hitzetan, lan horiek ideia honetatik abiatu dira: “marrazki bat hartu eta moztu, plegatu, tolestu eta espazioan jartzea, baina modu errealean”.

Paper gaineko lanetan —*Jonzabor* (*Juanbasura*, 2003), adibidez—, formak sinpleak dira eta horietan eguneroko objektuak antzeman daitezke, material eta gorputz garden desberdinak gainjarrita; hala nola, poltsak edo Artearen Historiaren oinordeko diren aurpegiak.

Amaierako guneek lanik berrienak jasotzen dituzte, eta horiek eskulturan egiten den irudikapenaren nozioa zalantzan jartzen dute, erreproduzio-prozesuen bitartez: igeltsuzko moldeak, aluminio, brontze edo altzairuaren funtzioa, edo argazkiak. *Noli me tangere* (*Mesfidantza*) [*Noli me tangere* (*La desconfianza*), 2009] lanaren izenburuak Artearen Historian behin eta berriz ageri den pasarte biblikoa du oinarri; bertan, Jesu Kristo Maria Magdalenari zuzentzen zaio berpiztu ostean. Lanean, berriz, lrazuk aluminio urtuz egindako piezak sortu ditu, beste material batzuen antzekoak direnak —kartoia, esaterako—, eta torlojuekin muntatu ditu, benetako materialaren eta irudikatutakoaren artean nahasmenduak sortzeko. Artistaren hitzetan, “materialen arteko artikulazioak zerikusi handiagoa du akumulazio-ideiarekin, muntaketarenekin baino”. Halaber, *Deikundea* (*Anunciación*, 2014) izenburuak Artearen Historian pintura-ikuspegiaren garapena laguntzeko funtsezkoa izan den gai bati egiten dio erreferentzia. Lan horren kasuan, lrazuren argazki-serieak berehalako ingurumena irudikatzen du (produzio-ikerketa eta -prozesuak), eta pinturak ingurumen hori eraldatzen du amarru bat izango balitz bezala; horrela, irudikapenaren, materialtasunaren eta ornamentazioaren arteko harremana jorratzen du artistak.

“Etengabeko itzulera”ren ideari eta artelan ororen zirkulu izaerari keinu eginez, hasi den lekuan amaitzen da erakusketa, hasierakoak gogorarazten dizkiguten argazki eta eskultura metalikoekin.

DIDAKTIKA

Erakusketan eta artistaren lanean sakontzeko, Museoko hezitzaileek gidatutako bisitaldi laburretan parte hartzeko aukera izango dute bisitariak. Horrez gain, muntaiaren zokoak eta beste bitxikeriak jakiteko, *Partekatutako hausnarketak* bisitaldiak izango dira, Museoko profesionalek zuzenduak eta Fundación Vizcaína Aguirrek babestutakoak.

Arte arduradunen ikuspegia: martxoak 22. Lucía Agirre erakusketaren komisarioarekin.

Funtsezko kontzeptuak: martxoak 29. Marta Arzak, Hezkuntza Arloko zuzendariordearekin.

Era berean, artistaren eta sortze-prozesuaren inguruan gehiago jakin nahi duenak erakusketaren microsite webguneko *Ba al zenekien...?* hezkuntza-atalean izango du horretarako aukera.

Irudiaren azala:

Noli me tangere III, 2012

Grafitoa, papera, zinta itsaskorra eta pintura paper gainean

152 x 165 cm

Artistaren bilduma

© VEGAP, Bilbao, 2017

Argibideetarako:

Guggenheim Bilbao Museoa

Komunikazio eta Marketin Arloa

Tel.: +34 944 359 008

media@guggenheim-bilbao.eus

www.guggenheim-bilbao.eus

www.guggenheim-bilbao-corp.eus

Guggenheim Bilbao Museoari buruzko informazio guztia www.guggenheim-bilbao.eus duzu eskueran (prentsa-eremua).

BIOGRAFIA

1963

Urriaren 26an jaio zen Andoainen (Gipuzkoa).

1981

Arte Ederretako ikasketei ekin zien Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU, Leioa) eta bertan lizentziatu zen eskultura-espezialitatean 1986an.

1982

Kultura Ministerioaren Arte Plastikoen diru-laguntza jaso zuen.

1983

Gure Artea 1983 sariketan Eskulturako Hirugarren saria eman zioten. Udal Aurrezki Kutxaren Kultura Aretoan egon zen erakusgai (Bilbo).

1984

Gasteizko Arte Plastikoen VI. Bienaleko Eskulturako Lehenengo saria jaso zuen.

1985

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Sorkuntza Artistikorako beka esleitu zitzaion.

Gure Artea 1985 Eskulturako Hirugarren saria eskuratu zuen.

Bilboko Windsor Kulturgintza galerian erakutsi zituen lanak.

1986

Euskal Herriaz kanpoko bere lehenengo bakarkako erakusketa egin zuen Galería Fúcares-en (Almagro).

Bere obra Madrilgo Círculo de Bellas Artes-eko *Muestra de arte joven* erakusketan sartu zuten.

1987

*Bizkaiko Arte*a lehiaketan Lehenengo saria jaso zuen eskultura-modalitatean.

Bere lan bat Musée d'Art Moderne de la Ville de Paris-ko *Dynamiques et interrogations* erakustaldian jarri zen erakusgai.

Una obra para un espacio erakusketan ere hartu zuen parte, Madrilgo Canal de Isabel II-n.

1988

Bakarkako bi erakusketa egin zituen Fundació Joan Miró-n (Bartzelona) eta Galería Soledad Lorenzo-n (Madril).

Kunsthalle Nürnberg-eko *IV Internationale Triennale der Zeichnungen* parte hartu zuen (Nurenberg) eta saritu egin zuten.

Urte horretan bertan ICARO Espainiako artista gazte nabarmenenari saria eman zioten.

Three Spanish Sculptors erakusketan parte hartu zuen, Donald Young Gallery-n, Chicagon.

1989

Galeria Joan Prats-en erakutsi zituen lanak (Bartzelona).

Londresen bizi zela, erakusketa bat egin zuen Txomin Badiolarekin batera Riverside Studios-en.

IX Salón de los XVI erakustaldirako aukeratu zuten, Bartzelonako Sala de La Fundació Caixa de Pensiones-en.

1990

Aperto de la *XLIV Biennale di Venezia*-n parte hartzeko hautatu zuten (Venezia). New Yorkera lekualdatu zen Comité Conjunto Hispano-Americanoaren Fulbright bekari esker eta bertan bizi zen hurrengo zortzi urteetan.

Bere obra Alemaniako Mannheim, Bochum eta Berlin hirietako zenbait museotan egindako *Spanische Eisenskulptur* erakustaldian sartu zen.

1991

New Yorkeko bere lehenengo bakarkako erakusketa egin zuen John Weber Gallery-n.

1992

Alejandro Oterok bere obrari buruzko erakusketa bat egin zuen Caracaseko Museo de Artes Visuales-en. Madrilgo Galería Soledad Lorenzon erakutsi zituen lanak.

Pasajes erakustaldian parte hartu zuen Sevillako Erakusketa Unibertsalaren Espainiako Pabilioian.

Tropismes erakusketan ere izan zen, Bartzelonakoa Tecla Sala de L'Hospitalet-en.

1993

Erakusketa egin zen John Weber Galleryn (New York).

Future Perfect erakusketan hartu zuen parte —Dan Cameron komisario izan zuen—, Vienako Heiligenkreuzerhof-en.

1994

Haren lanak ikusgai izan ziren Santanderreko Palacete del Embarcadero-n, Bartzelonako Galeria Joan Pratsen, Baltimoreko Costas Grimaldis Gallery-n eta, *Real World* izenburupean, Madrilgo Galería Soledad Lorenzo-n.

1995

Habitat erakusketa egin zuen John Weber Gallery-n.

Erakusketa bana egin zituen Zaragozako Galería Fernando Latorre-n eta Las Palmaseko Galería Manuel Ojeda-n.

Eskultura-tailer bat eman zuen Círculo de Bellas Artes-en (Madril).

1996

Bere obra MUMOK Museum Moderner Kunst Stiftung Ludwig Wien-go *Abstract-Real* erakusketan sartu zen (Viena).

1997

Beste erakusketa bat egin zen Madrilgo Galería Soledad Lorenzo-n.

Iruñeko Lekune galerian egin zuen erakusketa. Espacio Caja de Burgos-ek bere obrari buruzko erakusketa bat egin zuen Burgosen.

1998

New Yorketik Bilbora lekualdatu zen.

Bere obra Kunstraum Innsbruck-eko *El punto ciego. Spanische Kunst der 90er* (Austria) eta Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía-ko *Dibujos germinales* (Madril) erakusketetan egon zen erakusgai.

Tailer bat eman zuen Donostiako Arteleku arte garaikideko zentroan.

Telebistako Zientzia eta Arteen Akademiaren Sarien iruditza esleitu zen eskultura ondu zuen.

1999

Malagako Arkitektoen Elkargoaren Arte Aretoan egin zuen erakusketa *Daylight* izenburupean; gero, Galería Soledad Lorenzo-ra eraman zuten (Madril).

2001

Iruñeko Galería Moisés Pérez de Albéniz-en *Life Forms 1ME9D* erakusketa egin zuen.

Gaur, hemen, orain erakusketan parte hartu zuen Bilboko Arte Ederren Museoan.

Deux millénaires d'histoire de l'Espagne. An 1000-An 2000 erakusketan ere izan zituen lanak, Musée Royaux d'Art et d'Histoire-n, Bruselan.

2002

Marrazkien beste erakusketa bat egin zen Madrilgo Galería Soledad Lorenzo-n: *Mimendi 308*.

Conceptes de l'espai erakusketan parte hartu zuen Bartzelonako Fundació Joan Miró-n.

2003

Gasteizko Artium Arte Garaikideko Euskal Museo-Zentroak bere obra berrienari buruzko erakusketa egin zuen *Zatiak eta lotiak* izenburupean.

2004

Madrilgo Galería Soledad Lorenzo-n erakutsi zituen lanak *Pliegues* izenburupean.

Haren lana Bass Museum of Art-eko *Dispersions* erakusketan sartu zen (Miami).

2006

Iruñeko Galería Moisés Pérez de Albénizen *Let it bleed* erakusketa egin zuen eta Bilboko Galería Carreras Múgica-n *Todas las cosas—Pasión elemental—frutos extraños*.

Museo Patio Herreriano de Arte Contemporáneo Español-eko *Enlaces+Dos* erakusketan egon zen ikusgai (Valladolid).

2007

Haren lanak *Ezezagunak. Euskal Herriko arte garaikidearen kartografiak* erakusketan —Juan Luis Moraza izan zuen komisarioa— egon ziren Guggenheim Bilbao Museoa. *Belgradeko 48. Oktobarski Salon*-en parte hartu zuen.

2008

New Yorkeko Yancey Richardson Gallery-n *Home* eta Madrilgo Galería Soledad Lorenzon *Pello Irazu: Universo de suturas* erakusketak egin zituen.
Haren lanak Musée d'Art Moderne de Saint-Étienne Métropole-ko *Micro-narratives : tentation des petites réalités* erakustaldian egon ziren ikusgai (Saint-Étienne, Frantzia).

2009

Haren lanak The Museum of Contemporary Photography-ko *PhotoDimensional* erakusketan egon ziren ikusgai (Chicago).
Hondatu gabe bizi / Vivir sin destruir erakusketa izan zuen Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean.

2010

Bilboko Carreras Múgica galeriak erakusketa bat eskaini zion artistari.
El retorno de lo imaginario. Realismos entre XIX y XXI erakusketan hartu zuen parte Madrilgo Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía-n.

2011

Iruñeko Moisés Pérez de Albéniz galeriak *(1x1) x1* erakusketa inauguratu zuen.
Gainera, *Pello Irazu. Isolation Room* erakusketa egin zuen Gallery Kit-en, St Louis, Missouri-n. Haren obra ikusgai egon zen *Olor Color. Química, Arte y Pedagogía* talde-erakusketan, Arts Santa Mònica-n, Bartzelonan, eta *Sin realidad no hay utopía* erakusketan, Centro Andaluz de Arte Contemporáneo-n, Sevillan.

2012

Una oportunidad cada día erakusketa izan zuen CAB – Centro de Arte Caja de Burgos-en.
Bizitza formak 304 (Life Forms 304) lana, Guggenheim Bilbao Museorako berariaz sortua, erakundearen *Bizitako arkitektura* erakusketan izan zen ikusgai.

2013

Madrilgo Galería Moisés Pérez de Albéniz-en izan zituen lanak ikusgai.
Mínima resistencia. Entre el tardomodernismo y la globalización: prácticas artísticas durante las décadas de los 80 y 90 erakusketan parte hartu zuen Madrilgo Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía-n.

2014

New Yorkeko Yancey Richardson Galleryn aurkeztu zituen azkenaldiko lanak, *Studio* erakusketan.
Bakarkako erakusketa izan zuen Bilboko Galería Carreras Múgica: *SiluetasMasasSombras*
PerfilesBultosEspectros LeyendasDesechosEspantos.

Halaber, *Haber hecho un lugar donde los artistas tengan derecho a equivocarse. Historias del Espai 10 y el Espai 13 de la Fundació Joan Miró* erakusketan parte hartu zuen Fundació Joan Miró-n.

2015

Madrilgo Erkidegoko Sala Alcalá 31 aretoan *El muro incierto* erakusketa izan zen, artistak bi hamarkada baino gehiagotan egindako instalazioak zituen.

Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoarekin lankidetzan antolatutako *Suturak // Cerca a lo próximo* talde-erakusketan parte hartu zuen Donostiako San Telmo Museoan.

Beste bi talde erakusketetan ere esku hartu zuen: *Made in Spain. Periplo por el arte español de hoy* (CAC – Centro de Arte Contemporáneo de Málaga) eta *ExpoColección. El arte de los ochenta* (Museo Patio Herreriano de Arte Contemporáneo Español, Valladolid).

2016

Itzalak erakusketa izan zuen Palmako Centro Cultural Contemporáneo Pelaires-en.

Bartzelonako CaixaForum-en *alt-architecture*. erakusketan hartu zuen parte.

2017

Santiago de Compostelako CGAC-ak antolatutako *(Ex)posiciones críticas. Discursos críticos en el arte español 1975–1995* erakusketan esku hartu zuen.


Prentsa irudiak:
Pello Irazu. Panorama
Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.es/eu) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza.

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 35 90 08, edo posta elektroniko bidez, media@guggenheim-bilbao.eus

- 1 ***Lo dagoen lurra (La tierra que duerme)***, 1986
Altzairua eta olio-pintura
66 x 120 x 39 cm
Colección Soledad Lorenzo. Epe luzerako mailegua honi:
MNCARS
© VEGAP, Bilbao, 2017



- 2 ***Zoriontsu (Feliz)***, 1988
Altzairuzko eraikuntza eta olio-pintura
22 x 22 x 14 cm
Bilduma pribatua, Bartzelona
© VEGAP, Bilbao, 2017



- 3 ***L-1***, 1989
Olio-pintura paper gainean
240 x 165 cm
Carreras Múgica
© VEGAP, Bilbao, 2017



- 4 ***Dream Box (Caraqueño)***, 1993
Kontratxapatua eta binil-pintura
62 x 86,5 x 68,5 cm
Artistaren bilduma
Erakusketaren ikuspegia: John Weber Gallery, New York, 1993
© VEGAP, Bilbao, 2017



- 5 ***Irakasle ona (mahai gainean egurrezko pieza bat izatea)*** [*The Good Teacher (on the table being itself a piece of wood)*], 1993

Kontratxapatua, serigrafia eta binil-pintura

174 x 80,5 x 80,5 cm

Museum Moderner Kunst Stiftung Ludwig Wien

© VEGAP, Bilbao, 2017



- Emaztegaia (nahi duzuna izango zara)*** [*The Bride (you will be whatever you want)*], 1993

Kontratxapatua, serigrafia eta binil-pintura

173 x 76 x 80,5

Museum Moderner Kunst Stiftung Ludwig Wien

© VEGAP, Bilbao, 2017

- 6 ***Room Under***, 1995

Kontratxapatua, binil-pintura, zinta itsaskorra eta serigrafia ispilu gainean

113 x 142,5 x 94 cm

Artistaren bilduma

© VEGAP, Bilbao, 2017



- 7 ***Acrobat***, 2000

Horma-pintura, egurra, zinta itsaskorra eta pintura

190 x 164 x 28 cm

Colección "la Caixa". Arte Contemporáneo

© VEGAP, Bilbao, 2017



- 8 ***Kommutadorea (Switch)***, 1997

Argazki inprimaketa

190 x 127 cm

Bilduma pribatua, Bilbao

X, 2000

Aulkia, zura, igeltsua eta pintura

84 x 70 x 50 cm

Bilduma pribatua, Madril

Erakusketaren ikuspegia: Galería Soledad Lorenzo, Madril, 2000

© VEGAP, Bilbao, 2017



- 9 ***Itzala (Sombra)***, 2002

Aulkia, zura, zinta itsaskorra eta pintura

93 x 50 x 90 cm

Artistaren bilduma

© VEGAP, Bilbao, 2017



10 ***Bizitza formak 304 (Life Forms 304)***, 2003–12

Burdina, kontratxapatua, zura, zinta itsaskorra eta horma-pintura

Eraikuntzaren neurriak: 360 x 315 x 340 cm

Kokapen zehatzeko guztizko neurriak

Guggenheim Bilbao Museoa

Argazkia: © FMGB Guggenheim Bilbao Museoa, Bilbao, 2017.

Argazkia: Erika Barahona Ede.

© VEGAP, Bilbao, 2017



11 ***Udako euria (Summer rain)***, 2006

Pintura paper inprimatu gainean

132,5 x 132,5 cm, bakoitza

Artistaren bilduma

Erakusketaren ikuspegia: KM Kulturunea, Donostia, 2009

© VEGAP, Bilbao, 2017



12 ***Udako euria III (Summer rain III)*** 2006

Pintura paper inprimatu gainean

132,5 x 132,5 cm

Artistaren bilduma

© VEGAP, Bilbao, 2017



13 ***Fabrika (Belgrad) 10 [La fábrica (Belgrado) 10]***, 2007

Pintura argazki-euskarri gainean

30,5 x 23 cm

Bilduma pribatua

© VEGAP, Bilbao, 2017



14 ***Fabrika (Belgrad) 13 [La fábrica (Belgrado) 13]***, 2007

Pintura argazki-euskarri gainean

30,5 x 23 cm

Bilduma pribatua

© VEGAP, Bilbao, 2017



15 ***Noli me tangere (mesfidantza) [Noli me tangere (la desconfianza)]***, 2009

Aluminio urtuarekin egindako elementuak, soldatuta eta torlojeuekin lotuta

70 x 500 x 300 cm

Artistaren bilduma

© VEGAP, Bilbao, 2017



16 ***Noli me tangere III***, 2012

Grafitoa, papera, zinta itsaskorra eta pintura paper gainean

152 x 165 cm

Artistaren bilduma

© VEGAP, Bilbao, 2017



17 ***Bisitaria (Gabriel) [Visitante (Gabriel)]***, 2013

Kartoi, zur, poliuretanoz eta beira-zuntzaz egindako eraikuntza eta pintura

188 x 139 x 146 cm

Artistaren bilduma

© VEGAP, Bilbao, 2017



18 ***Blow up – Bandera***, 2013

Pintura akrilikoa argazki-euskarri gainean

85 x 125 cm

Artistaren bilduma

© VEGAP, Bilbao, 2017

